



Arau-xedapen orokorrak (AXO) egiteko prozeduraren eskema

(LEGEAK ETA DEKRETUAK)

Arau-xedapen orokorrak egiteko prozeduraren faseak.
(Ekainaren 22ko 6/2022 Legea)

1.- Irekitze-fasea

Irekitze-fasea, Tramitagunen espediente berri bat sortzeko eta konfiguratzeko fasea. Bere **helburua** da izapidetze-fluxua diseinatzea, itxaronaldiak edo erantzun-epeak definitzea, eskatu beharreko txostenak definitzea eta gastua-baimentzeko beharra dagoen zehaztea. Espedientea sortzen den unean, IZOk mezu bat jasotzen du.

2.- Aurretiazko kontsulta- eta hasiera-fasea

Aurretiazko kontsulta- eta hasiera-fasearen helburua da aldez aurretik herritarrei nahiz sailei kontsulta egiteko izapidea gauzatzea, **prozedura hasteko agindua** Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuta (**fase honetan oraindik ez da beharrezkoa testu artikulatua**).

3.- Instrukzio-fasea

Instrukzio-fasearen helburua hauxe da: **jendaurreko informazioaren izapidea** egitea, **aurretiazko onespen-agindua** (**testu artikulatua eranskin gisa jasoko du**) Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa **argitaratuz**; **entzunaldiaren izapidea** egitea, hala badagokio; **dagozkion txostenak eta irizpenak** eskatzea; **langileen ordezkariak** kontsultatzea, hala badagokio; **Lan Harremanen Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari** eta **Tokiko Gobernuen Batzordeari** aldez aurreko funtsezko txostenak eskatzea, hala badagokio; **KEBren txostena** eskatzea, eta **legezkotasun-txostena** edo **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren (EABJ) irizpena** eskatzea, hala badagokio.

4.- Onartze- eta argitaratze-fasea

Onartze- eta argitaratze-fasearen helburua hauxe da: lehenik eta behin, AXOren ekimenak gastua baimentzea edo dagozkion aurrekontu-aldaketa baimentzea behar duen zehaztea, eta horretarako organo eskuduna aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen Legean zehazten den zenbateko ekonomikoaren arabera izango da. Izan ere, kasu jakin batzuetan, Gobernu Kontseiluak onartu behar du gastua edo aurrekontu-aldaketa. Bigarrenik, erakunde eskudunak testu artikulatuaren azken bertsioa onartzea, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) aldez aurretik egiaztatuta euskarazko bertsioa zehatza eta baliokidea dela gaztelaniazko bertsioarekiko, eta alderantziz. Hori guztia, EHAA argitaratu aurretik.

Oharra

Tramitagune Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) Itzulnet aplikazioarekin integratzen da, bai itzulpenak eskatzeko, bai testuak berrikusteko, arau-xedapen orokorretarako. Lehen fase batean, Itzulnet / Tramitagune konexioa lege eta dekretu mailako arau-xedapenekin egingo da.



Arau-xedapen orokorrak (AXO) egiteko prozeduraren eskema


(LEGEAK ETA DEKRETUAK)

1.- Irekitze-fasea

Irekitze-fase honetan, hau da, Tramitagunen espediente berri bat sortzeko eta konfiguratzeko fase honetan **helburua** da izapidetze-fluxua diseinatzea, itxaronaldiak edo erantzun-epeak definitzea, eskatu beharreko txostenak definitzea eta gastua-baimentzeko beharra dagoen zehaztea. Espedientea sortzen den unean, IZOk mezu bat jasotzen du.

AXOren **espediente berri bat sortzea** Tramitaguneko Administrazio-jardunak multzoan.

Datu espezifikoak: planteatutako gaiei erantzun behar zaie, zeinek zehaztuko baitute AXOren berezko izapidetze-**fluxua**, prozeduran interesdun izanik ezagutzen diren guztien identifikazioa, itxaronaldien edo erantzun-epeen definizioa, txostenak eskatu behar zaizkien organoen zerrenda osatzea, gastua baimentzeko beharra zehaztea, bi hizkuntza ofizialetan **idazteko modua** identifikatzea, eta abar.



2.- Aurretzako kontsulta- eta hasiera-


Aurretzako kontsulta- eta hasiera-fasearen helburua da aldez aurretik herritarrei nahiz sailei **kontsulta egiteko izapidea** gauzatzea, **prozedura hasteko agindua** Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuta (**fase honetan oraindik ez da beharrezkoa testu artikulatua**).

Eusko Jaurlaritzaren Sailei zuzendutako kontsulta-izapidea.

Iragarki-taula elektronikoa **argitaratzea hasteko agindua** eta, hala badagokio, **atxikitako dosierra (fase honetan oraindik ez da beharrezkoa testu artikulatua)**, Eusko Jaurlaritzaren sailei zuzendutakoa, ekimenaren egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten. Argitaratze horrekin sail guztiei automatikoki jakinarazten zaie. Sailek egindako oharrak Tramitaguneren bitartez bilduko dira, eta **ez dago horretarako epe espezifikorik ezarrita**.

Gardentasunera bidaltzea: Legegunea

Xedapen orokorretako espediente guztietan, gardentasunean argitaratu beharko dira sortzen diren dokumentuak.





Arau-xedapen orokorrak (AXO) egiteko prozeduraren eskema

(LEGEAK ETA DEKRETUAK)

3.- Instrukzio-fasea (1 / 3)

Instrukzio-fasearen helburua hau da: **jendaurreko informazioaren izapidea** egitea, **aurretiazko onesp-en-agindua** (**testu artikulatua eranskin gisa jasoko du**) Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa **argitaratuz**; **interesdunei entzunaldiaren izapidea** egitea; dagozkion **txostenak eta irizpenak** eskatzea; **langileen ordezkariak** kontsultatzea, hala badagokio; **Lan Harremanen Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Tokiko Gobernuen Batzordeari** alde aurreko funtsezko txostenak eskatzea, hala badagokio; **KEBren txostena** eskatzea, eta **legezkotasun-txostena** edo **EABJren irizpena** eskatzea, hala badagokio.

Kontsulta- eta parte hartze-faserako dokumentuak

AXOa idaztea

Xedapen orokorra idazteko prozesuan, beharrezko diren azterlan eta txostenak egingo dira; bereziki, arauen gauzagarritasunarekin eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak betetzearekin lotutako kostuaren gainekoak.

Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, alde aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi beharko da.

Kontsulnen eta parte hartzearen izapidea epe amankomunean

Iragarki-taulan argitaratzea eta jendurrean jartzea

Iragarki-taulan argitaratzea dokumentu hauek:

- **Aurretiazko onesp-en-agindua, testu artikulatuarekin batera eranskin gisa.**
- **Arau-eraginari buruzko memoria.**
- Txosten juridikoa, hala badagokio.
- Memoria ekonomikoa, hala badagokio.

Mugarri horren epea hilabetekoa izango da, argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Sail sustatzaileak bi hilabetera luzatu ahal izango du epe hori.

Eduki horretarako gaituta egongo dira prozeduran definitutako interakzio-kanalak (presentziala eta/edo elektronikoa), herritarren oharrak/alegazioak jaso ahal izateko.

7

8

IZO

9

10

Kontsulta- eta parte hartze-faserako dokumentuak

Arau-eraginari buruzko memoria idaztea

Proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberako eraginari buruzko txostena egingo da, bai eta emakumeen kolektiboetan ikuspegi intersektorialetik duen eraginari buruzkoa ere.

Dokumentu hori arloko organo eskudunari, **Emakunderi**, emango zaio, legedian jasotakoa perfektionatzeko behar den dokumentazioarekin batera.

Tramitagune / Itzulnet konexioa.

Tramitagunetik IZOri eskabidea testu artikulatua eta arau-eraginari buruzko memoria itzultzeko/berrikusteko (Lege- eta dekretu-mailako AXO).

OHARRA: Lehenengo fase batean, Tramitagune / Itzulnet konexioa **lege- eta dekretu-mailako** AXOekin egingo da.

Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea (JILHZren bitartez).

I. fasea

7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legearekin bat etorritik, hasteko agindua eman duen organoaren aurretiazko onesp-en dutenean, lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak Eusko Legebiltzarrerara bidaliko dira.



Arau-xedapen orokorrak (AXO) egiteko prozeduraren eskema

(LEGEAK ETA DEKRETUAK)

3.- Instrukzio-fasea (2 / 3)

Instrukzio-fasearen helburua hau da: **jendaurreko informazioaren izapidea** egitea, **aurretiazko onesp-en-agindua (testu artikulatua eranskin gisa jasoko du)** Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa **argitaratuz**; **interesdunei entzunaldiaren izapidea** egitea; dagozkion **txostenak eta irizpenak** eskatzea; **langileen ordezkariak** kontsultatzea, hala badagokio; **Lan Harremanen Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Tokiko Gobernuen Batzordeari** alde aurreko funtsezko txostenak eskatzea, hala badagokio; **KEBren txostena** eskatzea, eta **legezkotasun-txostena** edo **EABJren irizpena** eskatzea, hala badagokio.

Gardentasunera bidaltzea: Legegunea.

Xedapen orokorretako espediente guztietan, gardentasunean argitaratu beharko dira sortzen diren dokumentuak. Irizpenak eskatzen zaizkienean dagozkien kontsulta-organoei, gardentasunera bidali beharko dira testu artikulatuak (**bi hizkuntzetan**).

Txostenak eta irizpenak eskatzea.

Aldi berean eskatuko dira txostenak eta irizpen guztiak, honako hauek izan ezik: Lege Garapen eta Araugintza Kontrolerako Zuzendaritzak eman beharreko legezkotasun-txostena, Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren txostena eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, gainerako irizpenak eta txostenak lortu ondoren eskatzen baitira.

Langileen ordezkariari kontsulta.

Hala dagokien kasuetan, langileen ordezkariarekin negoziatu beharko dira -edo kontsulta egin beharko zaie-, dagokion legeriak ezarritako gai-eremuen arabera, lan-baldintzen gaineko eta funtzio publikoaren legeriak zehaztutako gai jakin batzuen gaineko arau-egitasmoak, betiere ez badituzte oinarritzat aurreko negoziazio batean lortutako akordioak. Espedienteari erantsiko zaizkio betekizun hori betetzeko egin diren bilkuren aktak.

Entzunaldia eta jendaurrean jartzea.

Entzunaldiaren izapidea gauzatzeko bi era daude: arau-proiektuen eragina jasaten duten eskubide eta interes legitimoak dituzten herritarrei euri entzunez, edo herritar horiek biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarteei entzunez, betiere legeak onartutakoak badira eta xedapenaren gaiarekin zerikusia badute.

Entzunaldiaren izapidea eta jendaurreko informazioaren izapidea **batera** egingo dira, iragarki-taulan argitaratuz eta epe amankomunean, eta dokumentazio berari erreferentzia egingez.


Aipatutako erakunde edo elkarte horiek organoen bidez edo txosten edo berariazko kontsulten bidez parte hartzen badute araua egiteko prozesuan, ez da beharrezkoa izango interesdunei zuzenean entzunaldia ematea.

Entzunaldiaren izapidea **Jakinarazpenen erretiluen** bitartez egingo zaie identifikatutako interesdunei. Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dagoen "Nire karpeta" herritarren karpeta bidez sartuko dira interesdunek jakinarazpenen erretilu horretara.

Oharra: "Nire karpeta"-ra sartzeko, interesdunak elektronikoki identifikatu behar dira.

Alde aurreko funtsezko txostenak: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordea eta Tokiko Gobernuen Batzordea.

Alde aurreko funtsezko txostenak 3 dira: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordea eta Tokiko Gobernuen Batzordea. Dagokionean eskatuko dira.





Arau-xedapen orokorrak (AXO) egiteko prozeduraren eskema

(LEGEAK ETA DEKRETUAK)

3.- Instrukzio-fasea (3 / 3)

Instrukzio-fasearen helburua hau da: **jendaurreko informazioaren izapidea** egitea, **aurretiazko onespén-agindua (testu artikulatua eranskin gisa jasoko du)** Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa **argitaratuz**; **interesdunei entzunaldiaren izapidea** egitea; dagozkion **txostenak eta irizpenak** eskatzea; **langileen ordezkariak** kontsultatzea, hala badagokio; **Lan Harremanen Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Tokiko Gobernuen Batzordeari** alde aurreko funtsezko txostenak eskatzea, hala badagokio; **KEBren txostena** eskatzea, eta **legekotasun-txostena** edo **EABJren irizpena** eskatzea, hala badagokio.

Nahitaezko legekotasun-txostena.

EABJk ez badu irizpena eman behar, eta aurreko izapideak egin ondoren, legekotasun-txostena eskatuko da (6/2022 Legea, 22.art.)

16

IZO

Tramitagune / Itzulnet konexioa.

Tramitagunetik IZOri eskabidea testu artikulatuaren bertsio berria itzultzeko/berrikusteko (Lege- eta dekretu-mailako AXO).

Tramitagune / Itzulnet konexioa.

Tramitagunetik IZOri eskabidea testu artikulatuaren bertsio berria itzultzeko/berrikusteko (Lege- eta dekretu-mailako AXO)

17

IZO

KEBren nahitaezko txostena.

KEBren nahitaezko txostena, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitako unean eta moduan (6/2022 Legea, 23. art.).

Azken espedientea eratzeta.

Azken espedientea honako hauekin eratu da: hasteko agindua; aurretiazko onespén-agindua proiektuaren lehen testu integratuarekin; arau-inpaktuari buruzko memoria; egindako azterlanak eta kontsultak; eta nahitaezko txosten eta irizpenak; horiekin batera, izapideak egin bitartean idatzitako xedapenaren testu artikulatu guztiak, argi eta garbi identifikatuta, bai eta prozedura osoaren **memoria laburra** ere.

18

19

EABJren irizpena.

Espedientea osorik izapidetu ondoren EABJren irizpena eskatuko da, batzorde horren araudiak araututakoarekin bat etorrira, hau da, 9/2004 Legeak eta 126/2006 Dekretuak zehaztutakoa (6/2022 Legearen 25. art.).

Batzordeak irizpenak emateko duen epea haren audientzia aurreikusten duen xedapenean adierazitakoa da, eta, ezer adierazi ezean, **bi hilabetekoa**. Kontsulta urgentea bada, irizpena emateko gehienezko epea **hamabost egunekoa** da.

Eusko Legebiltzarrera bidaltzea (JILHZren bitartez).

II fasea

EABJra bidaltzen den dokumentazio bera helaraziko zaio Eusko Legebiltzarrari, 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legearekin bat etorrira.

20

Beste alde batetik, EABJren irizpenak **ez dira lotesleak izango**, non eta lege-indarra edo -maila duen arau batek ez duen kontrakoa xedatzen.

Baldin eta, irizpena eman ondoren, irizpenaren gai izan zen lege-aurreproiektuan edo arau-edo egintza-proiektuan funtsezko aldaketak egiten badira eta ez badatoz bat irizpenean egin ziren iradokizun edo proposamenekin, kontsulta berria egingo zaio EABJri aldaketa horiei buruz.

Legeguna



Arau-xedapen orokorrak (AXO) egiteko prozeduraren eskema

(LEGEAK ETA DEKRETUAK)

4.- Onartze- eta argitaratze-fasea

Onartze- eta argitaratze-fasearen helburua hau da: lehenik eta behin, AXOren ekimenak **gastua baimentzea edo dagokion aurrekontu-aldaketa baimentzea** behar duen zehaztea, eta horretarako organo eskuduna aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen Legean zehazten den zenbateko ekonomikoaren arabera izango da. Izan ere, kasu jakin batzuetan, Gobernu Kontseiluak onartu behar du gastua edo aurrekontu-aldaketa. Bigarrenik, erakunde eskudunak testu artikulatuaren azken bertsioa onartzea, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) **aldez aurretik egiaztatuta euskarazko bertsioa zehatza eta baliokidea dela gaztelaniazko bertsioarekiko, eta alderantziz**. Hori guztia, EHAAn argitaratu aurretik.

Gastua baimentzea edo aurrekontu-aldaketa.

Hala badagokio, gastu-baimena edo dagokion aurrekontu-aldaketa izapidetu. Kasu jakin batzuetan, Gobernu Kontseiluak onartu behar du gastua edo aurrekontu-aldaketa.

Tramitagune konexioa / P05 - JILHZra bidali (Saila).

IZOri eskabidea testu artikulatuaren bertsio berria itzultzeko/berrikusteko **P05 aplikazioaren bidez - JILHZra bidali (Saila)**


IZO: Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen arteko zehaztasun- eta baliokidetasun-ziurtagiria.

Behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuaren zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak **ziurtagiri bat** jaulkiko du argitaratu aurretik, egiaztatzeko euskarazko bertsioa **zehatza eta baliokidea** dela gaztelaniazko bertsioarekiko, eta alderantziz.

EHAAn argitaratzea.

Xedapen orokor arauemaileak EHAAn argitaratu beharko dira, bi hizkuntza ofizialetan (6/2022 Legea, 29.1. art.)

Legeak Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira, eta Eusko Jaurlaritzari bidaltzen zaizkio EHAAn argitaratu ditzan.






Arau-xedapen orokorrak (AXO) egiteko prozeduraren eskema

(LEGEAK ETA DEKRETUAK)

Arau-xedapen orokorrak Eusko Legebiltzarrera bidaltzea (aurreproiektua / lege-proiektua / dekretu-proiektua)

7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2106 Legearekin bat etorrita, hurrengo eskeman adieraziko ditugu Eusko Legebiltzarrera bidali beharreko lege-aurreproiektuak, lege-proiektuak eta dekretu-proiektuak.

Bidalketak	Aldatutako artikulua	Edukia
<p>1. fasea: Lege-aurreproiektua</p> <p>2. fasea: Bikoiztua EABJri bidali</p>	<p>56. artikulua.</p> <ol style="list-style-type: none"> Jaurlaritzak, Aholku Batzorde Juridikoari igorri behar zaizkion lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua bakarrik igorriko dio Eusko Legebiltzarrari, behin prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aurretiazko onspena izanda. (1. fasea). Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten. (2. fasea). Jaurlaritzak erabaki beharreko lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak Jaurlaritzako Idazkariari bidaliko zaizkio, banatu ditzan. Gai-zerrendan sartuko dira Sail interesdunek edukiari buruzko adostasuna adierazi dutenean, Jaurlaritzak berak ezarritako moduan. Adostasunik ez badago, edo adostasun hori baldintzatua bada, Lehendakariari dagokio gaia Kontseiluaren eztabaidetan sartzea erabakitzea. 	<p>1. fasea: Xedapenaren testua</p> <p>2. fasea: EABJari bidaltzen zaion dokumentazio bera (bikoiztua)</p>
<p>3. fasea: Gobernu Kontseilurako lege-proiektua</p>	<p>57. artikulua.</p> <ol style="list-style-type: none"> Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaizkion lege-proiektuekin batera, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena ere igorriko da eta, halakorik bada, txosten horretara egokitzeke memoria. (3. fasea). Lege-proiektuek aurrekonturako kargarik badakarte, dagokion finantza-eranskina izango dute. Eranskin hori Legebiltzarraren Erregelamenduak lege-proiektuei buruz xedatutakoaren arabera eztabaidatu eta bozkatuko da. 	<p>3. fasea: Orain bidalitako dokumentazio bera</p>



(*) JILHZ: Jaurlaritzaren Idazkaritzarako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza